

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ENTITATEEN
KONTUEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2015**

**FINANTZA EGOERA OSASUNTSUA EUSKAL TOKI-ERAKUNDEETAN:
ZORPETZEA % 10 JAITSI DA**

**Biztanleko batez besteko gastuak bere horretan dirau
Kontuak emateko maila handia azpimarratu behar da**

Joan den urriaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onetsi zuten Euskadiko Toki Erakundeen 2015eko ekitaldiko Kontuei buruzko txostena.

Txostenak 2015ean EAEn zeuden 251 udalen eta udalaz gaindiko 64 erakundeen (partzuergo, mankomunitate, kuadrilla eta partzoneriak) kontu orokorrak aztertzen ditu. Epaitegi honi kontuei buruzko dokumentazioa igortzeko duten obligazioa maila handian betetzen dela azpimarratzen du. 4 erakundek baizik ez dute obligazio hau saihestu. Gainera, 46 udaletan eta udalaz gaindiko 17 erakundetan (43 eta 14, hurrenez hurren, 2014an) ez da hutsik azaleratu ez Kontu Orokorra onartzeko epeetan, ez edukiari dagokionez ere.

URTEKO KONTUEN EDUKIA

HKEEk EAeko igorritako kontu orokorren eduki formala balio-neurtu du eta informatzeko betebeharrari dagokionez, legeria zein mailatan bete den egiaztatu du. Gainera, aurrekontuko likidazioek, balantzeek eta galera-irabazien kontuek ezargarria den araudiak agintzen duen informazio guztia besarkatzen dutela eta agiri horiek elkarrekiko koherente direla egiaztatu du.

34 udaletan eta udalaz gaindiko 13 erakundetan **agiriaren bat ez dela** Kontu orokorrean **jaso** ikusi da, hala nola, finantzaketa taula edo oroitidazkia.

20 udaletan eta udalaz gaindiko 7 erakundetan kontu orokorraren edukiak **aurrekontuko alderdietan akatsak** ditu, batik bat, diruzaintza geldikina oker kalkulatu izana.

Ondare kontabilitateari dagokionez, akatsak azaleratu dira 82 udaletan eta udalaz gaindiko 17 erakundetan; horien artean ohikoenak dira amortizazioa ez jasotzea, edota zorraren eranskinaren eta balantzearen arteko bateratasun eza.

Akats hauek batik bat 5.000 biztanletik beherako udaletan gertatzen dira.

ONESPEN EPEAK

HKEEK atzerapenak izan direla ikusi du urteko aurrekontua onestean (122 udaletan eta udalaz gaindiko 23 erakundetan); aurrekontua kitatzean (36 udaletan eta udalaz gaindiko 7 entitatetan) eta kontu orokorra onartzean (68 udaletan eta udalaz gaindiko 13 erakundetan).

27 udalek eta udalaz gaindiko 4 entitatek aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu zituzten. Ez dago jaso Kontu Orokorra onartu denik 7 udaletan eta udalaz gaindiko 8 erakundetan.

TOKIKO SEKTOREAREN FINANTZA EGOERA

2013ko abenduaren 31n, 18 udalek eta udalaz gaindiko 4 erakundek diruzaintza geldikin negatiboa zuten (defizita). Horietatik 8 udalek eta udalaz gaindiko erakunde batek defizit hau konpentsatu dute Aurrekontuko Foru Arauetan finkatutakoari jarraikiz. Udal bakar batek du defizita 2015eko abenduaren 31n.

Euskal **udalen autonomia fiskalak** (sarrera guztien gainean zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrerak) 2015ean % 39,84 egin du. **Biztanleko gastua** batez beste 1.237 eurorena izan da (1.274, 2014an). **Biztanleko batez besteko zorpetzea**, berriz, 233 eurorena da (2014an baino % 10,5 txikiagoa); horrek udal sarrera arrunten % 17,7 egiten du. 90 udalek ez dute zorrik.

Udalaz gaindiko erakundeei dagokien zorpetzeak 524 milioi euro egiten ditu (2014an baino % 7 gutxiago); zorpetze horretatik % 86 Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jabetzakoa da. Diru-laguntzetatik eskuratutako diru-sarrerek sarrera guztien gainean % 43,7 egiten dute.

KONTUAK EZ AITORTZEA

Txostenak adierazi du Gaintzako Udalak eta udalaz gaindiko beste 3 erakundek (Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak, Haranako Ur Partzuergoak eta Debade Udal Euskaltegien Mankomunitateak) ez dutela 2015eko ekitaldiari dagokion kontu orokorra igorri. Gainera, Kuartangoko Uren Partzuergoaren eta Ekialdeko Lautadako Urkidetzaren kontuek ez dituzte indarreko egitura bateratuak legediak agintzen duenarekiko. Ekialdeko Lautadako Urkidetzak ez dio jarduerari ekin.